

4. BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko behar diren baliabideak, **fisikoak, giza-baliabideak eta finantza baliabideak** dira. Alde batetik, bulego edota ofizina bat eta ordenagailuak beharko ditugu lan egiteko. Bestetik, pertsonak ere beharrezkoak dira, eta azkenik, dirua beharko dugu prozesu honekin aurrera jarraitzeko.

Baliabide fisikoak, gure produktua lortzeko beharrezkoak ditugun gauza materialak izango lirateke. Batetik, taldean lan egiteko **espazio bat** behar dugu. Horretarako, bulego bat alokatzea edota erostea ideia ona izango litzateke. Bestalde, **ordenagailuak** ezinbestekoak dira enpresa hau martxan jartzeko. Ordenagailuen bidez, aplikazioa kudeatuko dugu eta honetaz gain, beste enpresekin eta bezeroekin kontaktuak jartzeko baliabidea da.



Giza-baliabideei dagokionez, gure taldekoekin eta informatikari edo programatzaile bat kontratatuta nahikoa izango dugula pentsatzen dugu (4 taldekide gara). Boston artean, eta lan konkretu batzuk egiteko norbaiten laguntzarekin, beste enpresekin egingo ditugun akordioen kontratuak prestatu eta sinatu, eta aplikazioa sortuko dugu. Ez ditugu ordenagailuak erosi behar honetarako, norberak baduelako bere ordenagailu propioa. Jende nahikoa ez garela ikusten badugu, pertsonal gehiago kontratatu beharko dugu.

Azkenik, **finantza-baliabideen** inguruan, hasiera batean, gure poltsikotik jarriko dugu diruaren zati bat. Honetaz gain, udaletxeari diru-laguntza bat eskatuko



diogu, prozesuaren hasieran diru asko behar delako. Lortzen dugun diru hau, lehenengo aplikazioa sortu eta programatzaile edota informatikoari ordaintzeko izango da. Proiektua aurrera joan hala, lortzen ditugun diru-iturrietatik nahikoa diru izango dugula espero dugu, bestela, gure poltsikatik dirua jartzen jarraitu beharko dugu, enpresak ondo funtzionatu arte.